

M-21eko greba orokorraz geroztik gero eta larriagoak bilakatu dira krisiaren ondorioak. Izan ere, patronalak lehen baino ozenago egiten ditu bere eskakizunak, eta gobernuek haren esanetara jarraitzen dute politika desegokiak aplikatuz, eta gure jendarteko baliabide gutxien duten eta baztertuen dauden giza taldeen eta milaka langileen egoera gorriari bizkar emanez.

Patronalak eta herri-administrazioek ezin dute beren kabuz ezarri eredu ekonomiko-sozial jakin bat, ezin dute jendea gehiago nahastu "elkarrizketa soziala" delako horrekin, kapitalaren neurrira eginda baitago, helburu birekin: ezer ez aldatzea, eta erreibindikaziozko ekintza sindikala indargabetzea.

ELA-LAB-ESK-STEE/EILAS-EHNE eta HIRU sindikatuok bestelako eredu ekonomiko-sozial baten alde egiten dugu apustu. Eredu horrek hiru printzipio hauek ditu oinarri: gizarte-justizia, berdintasuna, eta aberastasuna eta lana banatzea —bai ekoizteko lana, bai erreprodukziokoa—.

Hori dela-eta, eskatzen dugu indarrean dauden politikak aldatzeko; Euskal Herrian bizi garenoi ekonomia-, lan- eta gizarte-politiketan erabakiak hartzeko; eta geure esparrua izateko —ekonomian, lanean eta gizarte-babesean eskumen beteak izan behar dituen—.

Era berean, eta egoeraren premia eta larria kontuan hartuz, dei egiten diegu Gasteiz eta Iruñako gobernuei eta foru-aldundiei, epe laburrean neurri-sorta batzuk hartzeko, horretarako benetako borondate politikorik baldin badago.

1. Enpleguaren alde jokatzeko, langileak aise kaleratzen utzi beharrean; eta dagoen enpleguaren kalitatea hobetzea:

- Ez onartzea EEERik, ordezkaritza sindikalaren gehiengoa ados egon ezean.
- Aldi baterako kontratazioan iruzurrik egiten ez uztea, eta enpresak behartzea aldi baterako enplegua finko bihurtzera eta azpikontratazioa mugatzera.
- Pribatizaziorik ez.
- Langileen osasuna eta bizitza babestea.

2. Lan-baldintzetan berdintasuna bermatzea, eta diskriminazioak ezabatzea —generoa, adina, gaigabezia edo naziotasuna dela-eta—.

3. Gizarte-prestazioak ugaltzea, langabeziaren eta pobreziaren hazkundeari aurre egitearren.

- Langabe guztiek bizimodu duina eramateko besteko prestazioa jasotzea.
- Gizarte-soldata bat ezartzea, pobrezia-mailatik gorakoa.

4. Zerga-politika bidezkoa eta gehikorra izatea, aberastasuna zuzenago banatzen laguntzeko modukoa.

- Errenta handiei eta kapitalari azken urteotan onartu zaizkien beherapenak (PFEZ, sozietateen zerga eta ondare-zerga) kentzea.
- Ikuskapen fiskalak egitea lanez kanpoko errenta guztiei, iraungi baino lehen; eta ogasunetan ustelkeria fiskaleko kasu guztiak argitzea eta garbitzea.

5. Osasun eta hezkuntzaren gastu publikoa igotzea, garatuen dauden herrialdeen batz besteko mailarekin berdintzearen:

- Osasunean egiten den gastu publikoa %52 igotzea.
- Hezkuntzan egiten den gastu publikoa %41 igotzea.

6. Hurrengo eskubideak legez onartzea:

- Menpekotasun-egoera guztiak estaltzea, kalitatezko zerbitzu publiko baten eskutik.
- Sare publikoan 0 eta 3 urte bitartean eskatzen diren plaza guztiak estaltzea.
- Gizarte-alokairuko etxebizitzak eskuragarri izatea, eta hutsik dauden etxebizitzengatik zerga-zigorra ezartzea.

7. Sektore publikoa bultzatzea, eta garapen ekonomiko eta sozialaren eragile bihurtu. Horretarako, finantza-sistema publiko bat behar da, baita industria eta energiako sektore publiko sendo bat ere, eta gainera, sektore-mailako politikak lerrokatzea.

8. Askatasun sindikala bermatzea, gehiengo sindikalak errespetatzea, greba-eskubideari oztoporik ez jartzea (gutxienezko zerbitzuak gehiegizkoak izan gabe), eta zenbait sindikaturi, daramaten ibilbideagatik ezarri dieten bazterketa amaitzea. Halaber, epaileek gehiegizko esku-sartzerik ez egitea lan-harremanen esparruan.

9. Politika ekonomiko eta sozialen diseinuan gizarte-partehartzea sustatzea, eta garrantzizko gaietan jendartearen iritzia benetako kontsulta eta erreferendum lotesleen bidez aintzat hartzea (zergen erreformak, abiadura handiko trenak, gizarte-soldata...).

10. Lan harremanetarako eta gizarte-babeserako euskal esparru bat sortzen ahalegintzea, Hego Euskal Herriak berezko legeak egitea izan dezan enplegu, negozioazio kolektibo eta gizarte-babesaren arloetan. Hori horrela, hurrengo neurri hauek, besteak beste, hartu ahal izango ditugu: lanaldia murriztu, aparteko orduak kendu, erretiro-adina aurreratu, enpleguari buruzko benetako politikak egin, pentsioen sistema hobetu, eta soldatak duinagoak bihurtu.